

eLe-gunea - MANIFESTUA

Abenduak 3. Euskarak elkartu gaitu, gaur, Legorretako frontoian. Ezin bestela izan, Euskararen Nazioarteko Eguna izanik. Ospakizun egun hau baliatu nahi izan dugu jaioberria den gizarte-talde edo proiektu baten berri emateko.

Zuetako batzuek jakingo duzuen bezala, Legorretako Udalak Euskararen Udal Ordenantza bat jarriko du indarrean. 2015eko urtarritetik aurrera, Udal Ordenantza honek Udalaren hizkuntza-erabilera arautuko du, batetik —hau da, hizkuntza bat edo beste erabiltzeko irizpideak ezarriko ditu—, eta euskararen erabileraren aldeko neurri proaktiboak sustatuko ditu, bestetik. Horrekin lortu nahi dena zera da: Udalaren barne funtzionamenduan euskara lan-hizkuntza bilakatzea, eta herritarrekiko harremanetan ere —nola ahoz zein idatziz— euskara lehenestea. Jendaurreko ekitaldietan ere, gauza bera: publikoaren arabera, eta adostasunaren bidetik betiere, aurkezpenak, geroz eta gehiago, euskara hutsean egingo dira.

Udalarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzten herritarren errolda egingo da. Eta herriko talde eta elkarteei, modu progresiboan, urratsak egitea proposatu zaie.

Legorretar guztion ondarea da euskara. Eta gure hizkuntzak merezi duen tokia izan dezan, Udalari dagozkion komunikazio-esparruetatik haratago egon behar du: euskarak egon beharko luke familian, egon beharko luke aisialdian, egon beharko luke... gure eguneroko 'menuan'. Horregatik, gaurkoan, Udalaz baino gehiago, herri ekimenetik sortutako mugimendu edo talde bati buruz hitz egitea dagokigu.

Herri ekimenetik jaiotako euskararen aldeko gizarte-mugimendu bat sortzeko gogoaz eta beharraz aritu ginen solasean, hain zuzen ere, joan den azaroaren 19an Udaletxeko Batzar Aretoan egin genuen bilkuran.

Gizarte-mugimendu hori abian jartzeko, Legorretan dagoen herri-dinamika aprobetxatzea erabaki zen; honela, herriko talde eta elkarte guztiei euskara arduradun edo euskara solaskide bat izendatzeko proposamena egin zitzaigun. Harreman-sare hori Legorretako herri-elkarte eta taldeetako ordezkariok osatuko dugu; gutako bakoitzak, bere ikuspegitik, euskararen aldeko ekarpenak egin ditzan. Hizkuntza-tipologia ezberdineko herritarrak izango ditugu bidelagun: bertan jaiotakoak eta etorri berriak; euskaraz ikasten ari direnak, euskaldun berriak eta zaharrak, eta baita euskaraz ez dakiten herritarrak ere (zergatik ez?)... Horiek guztiek emango diote hauspoa egitasmoari.

Euskara, modu atsegin eta erakargarri batean, legorretarrentzat hizpide izatea lortu nahi dugu. Guztiok ziprztinduko gaituen 'olatutxo' eragin nahi dugu, ideia freskoz betetako olatua, euskararen inguruko ohiko diskurtsoak atzean utziko dituen.

Ez dugu erronka makala, baina gogotsu gaude ibilbideari ekiteko. Urtebeteko epea eman diogu geure buruari. Urtebetean, 4 bileratan parte hartzeko konpromisoa hartu dugu.

Gizarte-mugimendu edo talde honen egitekoen artean leudeke euskararekiko motibazioa lantzea, informazioa eta esperientziak partekatzea, adostasunak bilatzea eta euskararen aldeko eskualde, lurralde edo herrialde mailako ekimenak Legorretara ekartzea.

Azken batean, euskara izango dugu ardatz: Zer egiten dugu, gure egunerokoan, euskararen alde? Zer egin dugu orain arte, eta zer egin dezakegu aurrerantzean? Zer da ondo egiten duguna, eta zer hobetu litekeena?

Akuilu lana egiten hasiko gara, begirada zorrozten... uste dugulako garrantzitsua dela, baina garbi gera dadila: kezka eragiteko baino gehiago, euskararen aldeko mezua zabaltzeko gaude hemen.

Izan ere, euskararen esparrua inoiz baino zabalagoa eta pluralagoa den honetan, euskara ezagutzen duten herritarren kopurua inoiz baino handiagoa den honetan, euskararen erabilerak arduratzen gaitu. Euskaraz hitz egiten al dugu etxean, bikotekidearekin, lagunekin? Zer eredu ematen diegu gure haurrei? Maiz entzuten al dugu euskara gure herriko kale eta auzoetan?... Euskaraz komunikatzerakoan eroso sentitzea, euskara maitatzea eta euskaraz maitatzea, euskarak —bere hiztunei— ‘hegan egiteko’ bide ematea... Horiek izan litezke, neurri batean, gure hizkuntzaren arrakastaren gakoak.

Datorren urtean lau bilkura egingo ditugula esan dugu. Bilera horietan, edonork parte har dezake, esan bezala: alderdikeriak alde batera utzi, eta ideologia, lanbide eta adin ezberdineko jendearen ahotsak entzun nahi ditugu. Izan ere, uste dugu euskarak lotura instituzional eta politikoetatik aske egon behar duela.

Talde berriaren aurkezpena egitera etorri gara gaur hona. Baina, egia esan, ezer gutxi dugu, oraingo, jendaurrean aurkezteko. Borondate bat, motibazio bat, jarrera bat... Tira, ez da horren gutxi, ezta?

Talde bezala hartuko dugun izena eta irudia erabakitzeko ditugu oraindik. Horiek izango dira gure lehen egitekoak. ‘Irekita’ dagoen arren, hasi gara, dagoeneko, proposamenak jasotzen: **eLe-gunea, Euskararen Legorretako Eragin Gunea** izena aipatu zen abiapuntu gisa, baina, esan bezala, aukera gehiago ere egon litezke.

Abenduak 3. Euskararen Nazioarteko Eguna. Gaurkoan, argazki koloretsua ateratzea lortu dugu. Baina argazki bat baino zerbait gehiago dago elkarretaratze honen atzean. Olatuaren aurrean arnasa sakon hartu eta bustialdiarekin gozatzeko prest gauden herritarrok osatzen dugu gaurko giza kate hau.